

AITA EMILIANO BARANDIARANEN ESKUIDATZIAK: ATSOTTIZAK ETA ESAPIDEAK

Sarrera

Neure umetako gertaera bat ekarri nahi dut hona. Gertaera horrek badu artikulu honekin zerikusi txiki bat. Markinako lehen ikastola-umeeek –hala esatea zilegi izango da, ordura arte “eskolume” esaten zen eta- udaletxeko areto batean hasieran, etxe partikular batean hurrengo, eta, azkenik, karmeldarren komentuko hegala batean izan zuten beren ikaslekua. Herriko lehen eskolume horietako bat ni izan nintzen eta ikastola berri horretan nengoela, artean zortzi-bederatzi urte izango nituen, egun batean, liburu bat zozketatuko zutela esan zuten. Esan eta egin. Eta liburu hori suertatuko eta niri, hain suertez ere. Orain arteko zozketa guztietan behin bakarrik izan dut lehen saria. Liburuaren izenburua *Andre Mari gaztediaren eskuetan*, Ediciones “El Carmen”, 1954. Egilearen izena liburuaren goialdean agertzen zen: A. Emiliano (Karmeldarra). Liburu hori nire eskuetara etorri zela badira ia hogeita hamar urte. Ez nuen orduan pentsatuko Markinako karmeldarren komentuko beste hegala batean idazle beraren, Emiliano Barandiaranen, eskuidatziaren gaineko lan bat egiten ariko nintzenik. Lan hau Julen Urkiza eta Luis Barajazarra adiskideen eskariz egin dut. E. Barandiaranen jaiotzako mende urteurrena dela eta, idazle eta musikorearen obraren alderdiak aztertze lan-banaketan niri egokitu zaizkit haren esaera eta atsotitzen eskuidatziak. Niri

egokitu, ni ere nonbait, besteak beste direla, esaera eta atsotitzen zalea naizelako. Idazlearen lan argitaratu, nortasun, balio eta abarrez beste batzuk arituko dira aldizkari honetako ale berezian.

Nire lan honen helburua ez da besterik eskuidatzi batzuen argazki edo radiografia zehatz bat egitea baino. Argazki hori egiteko biderik egokiena, beharbada, eskuidatzion aukera on bat, izango litzateke. Aukera edo "dasta" on bat bestaldean dioten bezalaxe. Argazki eta aukera horren ondorenean, ondorio batzuk ateratzen ahaleginduko naiz.

Eskuidatzi edo koadernoen ezaugarriak

Nire eskuetara iritsi diren E. Barandiaranen eskuidatziak karpeta baten barruan gorde zituen idazleak. Karpetak gai baten inguruko materiala gordetzeko dira, gehienetan. Karpeta horretan dauden eskuidatziak atsotitz eta esapideak dituzte gai nagusizat. Hona, handi-handika, ezaugarri nagusiak:

Karpetan zazpi koaderno daude guztira: lehen seiak eskuz idatziak, eta zazpigarrena, makinaz. Eskuz idatzita dauden koadernoak letra txukunez idatziak daude, berak ohi zuen baino letra txukunagoz. Zergatik? Inoiz edo behin, paper solteak ikusi izan ditugunean artikulua edo gainerako oharrekin, askoz ere letra bizkor eta zabarragoa erakusten dutelako. Koaderno guzti hauek, gorago esan dugunez, karpeta batean sartuta gorde ohi zituen autoreak. Karpetaren azalean *A. Em* dator. Laburdura horiek egilearen izena salatzen dute: Aita Emiliano. Karpetak badu beste ezaugarri bat: *7C-D*. Zenbaki hori ez da besterik koadernoen zenbakia baino. Eta hirugarrenik eta azkenik, esan dezagun guretzat argigarriena den hitz bat ere badau, *Esaerak* hitza, hain zuzen.

Esaeren gainekoak direla koadernoak badiogu, ez dugu zehaztasun handiegirik ematen. Zergatik? Esaera hitza, hitz lauso edo ilun samarra delako. Hitz horren bidez kontzeptu desberdinak ulertzen ditugu. Esaerak diogunean hizkuntza bakoitzak

dituen esateko modu bereziak direla ulertzen dugu. Gaztelaniazko locución, idiotismo eta abar. Filosofia edo herri-jakintza duten esaldi bereziak refrán, sententia eta abarrez adierazten ditugu. Gure koadernoetan bietakoak daude. Gehiago daude, hala ere, esapide edo erramoldeak, atsotitz edo errefrauak baino. Zergatik? Esapide edo erramolde mundua, besteak beste direla, aberatsago edo ugariagoa delako atsotitz mundua baino.

Gure lantxo honetan frogatu edo ikusiko dugunez, lehen seiak izan ziren zazpigarren koadernoaren zirriborroa. Lehen sei koadernoetako emaitzarik onenak zazpigarrenean gorpuztu dira. Koadernoak zenbakiturik daude azalean. Lehen kudernoak 1/7 jarriko du; bigarrenak 2/7; hirugarrenak 3/7; laugarrenak 4/7, boskarrenak 5/7; seigarrenak 6/7 eta zazpigarrenak edo azkenak 7/8.

Guk lantxo honetan karpeta honetako zazpi dokumentu edo koadernoak emango diegu inportantziarik handiena. Ez da lan luze eta sakona izango gure lan hau. Dokumentu batzuen argibide edo zertzelada behinenak edo inportanteenak eman nahi ditugu lan honen bidez. Badira koaderno hauetaz guztietaz gain bi egutegitxo ere. Egutegiek horma-egutegiak dirudite. Arantzazuko horma-egutegiaren tankerakoak. Egutegi bakoitzak hilabeteko eguna markatzeaz gainera, horrialde zuritxo bat eskeintzen du. Horrialde zuri honek gainkaldean "Anotaciones" idazpurua dakar. Emiliano Barandiaranek esaldi bat edo beste jarriko du egun bakoitzean. Uztailaren hamaseian, esaterako, Markinako Karmen egunean, hauxe dakar: "Uztallean uzta, eztanean festa". Esan beharrik ez dago Markinako komentuan gordetzen badira koaderno hauek, Markinan bertan idatzi direlako dela. Esaera zaharra ote da hor datorrena? Ala berak Markinako jai nagusian, garbantzuz-egun nagusian, berak asmatua? Guk uste dugu berak asmatua dela. Beste zenbait herritik hartuak direla dirudi. Uztailaren 8an, esaterako, "Erdi txilibrizkaute" eta "argi-argi" esapideak datoz.

Zer esan nahi duen beherago agertzen da: “Borracho”. Ekainaren 27an “ixil-poltsaren bat ba-jaukak” dator. Ekainaren 16an “kopin (Eibar)” eta azpikaldean “muñeca”. Ekainaren 15 “Axaxa emoten” azpikaldean “tentar”. Gure laneko enbor nagusia gure koadernoak osatzen dutenez, eman dezagun hauen berri.

Gure lan honetan koadernoetako adibideak emango ditugunez gero, adibideak iturrian dauden bezala aldatuko ditugu hona. Ez dugu, beraz, ortografian ez puntuazioan inongo aldaketarik egingo. Aldatuko dugun gauza bakarra erre gangardunen grafia da. Gure ordenadorean irudikatzeko nekez baino nekezago egiten zaigunez, gaur eguneko erara idatziko ditugu.

Lehen koadernoak: 1/7

Lehena da tamainaz txikiena. Blok txiki bat baino ez da. Neurriak 83 milimetro zabalera, 125 luzera. Blok hau bi eratara dago idatzia hasieratik amaierara, eta alderantzitara, amaieratik hasierara. Guztira hogeit hamar orrialde ditu, eta hiru orrialdetan ez dago idatzirik. Zehatzago esanik, bakar bat baino ez dago hutsik eta bi orrialdetan oso gutxi dago idatzita. Hainbat esaldi, gainera, ezabaturik ditu. Berak hausnartu edo nonbaitetik moldatutako esaldi filosofikoak dira. Hona hasieratik hartutako lehen orriko bi:

-Jaió ordukoxe negar dagigu: zergatik, gero jakiten degu.

-Egipen eder batek ekiñaldi gogorra eskatzen digu.

Azkenetik hasitako lehenak hona hemen:

-Alperrak bitarikoak dira: batzuk ez dute lanik egiten, baña lan egin bearrik ez dute; beste batzuk, lan egin bearra badute baña ez dute egiten.

-(Ezabaturik) Euki beti goguan Aita bat dezula zeruan.

-Gaur munduan diran Judas eta saltzaille guztiak beren burua lotzea nai izango balukete elitzatzake (sic) dendetan bear beste soka izango edo mendietan bear beste zuaitz.

-Pamilietako asarreak ezin litezke luzaro txillean gorde: ormak laister ateai esango dizkiete: ta ateak jendeai.

Esaldi filosofiko hauetaz gainera badira esapideak "itsu mandoka" "autsi-mautsi bat egitera beartuak" eta animalien hotsitz zenbait ere bai. Hona:

Erleak egiten barrumba; astoak arrantza; kallak txinta¹; zaldiak irrintzia; katuak² miau edo ñau; txerriak kurrinka; abateak kinkuna; ardiak janba³ edo marraka; txirritak⁴ kirrika; Usoak kurruka edo arrunga; oreiñak arrama; idiak marruma; busokak pioka; zakurrak sainga, chanpa, hauma edo errauntsia; ollarrak kukurruku; beleak karranka; kukuak kuku; zikoinak kalaka; ainarak gurguria (grazailla); azeriak maube (chanpa); larren oilloak koroka; oreinkumeak korroka; igelak karka; lertzunak tturutta; otsoak urubia; korkodillak auttiana⁵; kabekak hurubia; itxasoak orroama; aizeak bubunba; ostoak firfira; iburtzuriak karraska; ateak danba; zerrak kirrika; jendeak mintzoa, oiua, orroa⁶, kantua, aubena⁷, irrintziña, xotina, pokerra, uzkerria eta irri-karkailla.

Bigarren koaderno: 2/7

Bigarren koaderno honek goian dakar zer den: zirriborroa. Neurriak 150 milimetro zabalera, 211 luzera. Bigarren koaderno hau ere blok bat dugu eta lehen hogeitaz orrietan bakarrik

¹ Ez dut ondo irakurtzen "txinta" ere izan liteke.

² Ez dakit zer dioen "katuak" ala "gatuak". Harrigarria badirudi ere, bigarrena irakurtzen dut.

³ Hemen ere dudak ditut. "Janba" uste dut dela.

⁴ Hemen ere dudatan ibili naiz zer animalia den asmatzen.

⁵ Nondik atera ote du kokodilak egiten duena? Hemen ere ez dut ondo asmatzerik izan. Zer dio auttiana edo auttiana?

⁶ Irakurri "orroa" irakurtzen dut. Hutsa delakoan aldatu egin dut.

⁷ Hemen "authena" irakurtzen dut. Hutsa delakoan aldatu egin dut.

daude apunte edo zirriborroak. Horri horiek behetik gora zabaltzen direnez gero, alde batetik bakarrik daude idatzita. Lehen hiru orrialdeak lapitzez idatzita daudenez gero, ezabatu-
xeak daude eta ez da ondo irakurtzen. Zer nolako idatziak dituzte? Hemen ere era guztietako gauzak irakurtzen ditugu. Laugarren orrialdean, esaterako, “zorigaitzak” titulupean honako hauek irakurtzen dira:

-Sur polita dutenen artean surmotz izatea.

-Sagar bat zuritzean inguruz inguru zati baten ateratzeko asmotan gabiltzala, ia bukatutakoan apurtzea.

-Txamar-botoiak lotzerakoan azken botoiarentzat xulorik eztozula ikustea (oker ari garalako)

-Izparringi bat irakurtzen asi izan eta azken orrian aurreko eguneko dela oartzea.

-Arazo garrantzitsu bat ia bukatzeko gaudela, ustegabeko sudurretatik odola darigula oartzea...

-Silloi aundi baten exeri ta balaunekin okotsa joten degula gelditu...

-Jendez beteriko enparantza batetik igarotzean, daramagun automobil zarrak pot eginda bertan gelditu bearra...

Burubide bitxiak dira benetan hona eskuidatzitik aldatu ditugunak. Berak asmatu edo entzun edo nonbaitetik irakurriak ote dira? Esaldi hauen ondoren (badira hamalau gehiago) “Iru Erregeak” deitu artikulua baten zirriborro bat ere badator, eta ondoren Izkirimiriak titulupean elkarrizketa bitxi batzuk daude:

Zein polita zeran gero Mirentxu!

-Ba, nik ezin nezake esan berdin zugaitik.

-Ba, gezurra esaizu, neronek bezala!

-Egi egia diotsut urak mozkortu nau gaur

-Urak? Nola baña?

-Ba, euria bota ala asi da, bai, ta ardantegian sartu bearra izan dot.

-Zer nai dezu artu?

-Nik ezer ez! Gaur eztoz jateko gogorik.

-Eta zuk? (beste bati)

-Nik beste onti dakarkiozuna, baña patatakin.

Edale bateri mats-mordo bat eskeintzen dautsoe

-Nik ardoa dan bezala artzen det, ez pildoretan (onek).

Era honetako izkirimiriak dakartza bigarren koaderno honetik. Hemengo letra ondo transkribatzeak uste baino arazo gehiago ematen ditu.

Hirugarren koaderno: 3/7

Hirugarren koaderno honek 62 orrialde ditu. 154 milimetroko zabalera, 215 milimetroko luzera. Orrialde guztiak bi zutabetan banatuta daude. Lehen 54 orrialdeak esapideei dagozkie. Eta azken zortziak atsotitz edo errefrauei. Lehen 54 orrialdeetan ez dago izenbururik, azken zortzi orrialdeetako buruan "Euzkel-Esaerak" izenburua dakar. Esapideak bi eratarik dakartza, erdaraz eta euskal ordaina ondoan dutela. Erdal esapidea ezkerreko zutabeetan dago eta euskal ordaina eskubian. Esapide guztiak, gainera, abezekiro edo alfabetikoki ordenatuak daude. Eman ditzagun lehen hamar adibideak.

"A buenas/ Onez-onean; A ciegas/ itxu-itxuan; A bueno le pregunta Vd/ Leku onera jo dozu barri billa; A buena hora mangas verdes!/ ¡Jun ta arrapazak!; Acudir al Señor/ Jaunagana jo; Abrir paso al Euzkera/ Euzkereari bide-egin; Acompañar en el sentimiento/ garbaikide izan (nozu-zue etc); Adelante en lo suyo (su tema...)/ Arek beti bere astoari arre; Adular a uno/ Iñoren bizkarrara esku leunakaz igurtzi.

Atsotitzei dagozkien orrialdeak askoz gutxiago dira, gorago esan dugunez. Hauetan ez da erdarazko itzulpenik ez ordainik agertzen. Hauek ere ordenaturik agertzen dira. Hona, esaterako, lehen A hizkiaren azpian aurkitzen diren lehen hamarrak:

A zelako bi, bata zu ta bestea ni; Askatasun uretan bitzak itto; Astoaren arrantzea, miñ bagea; Azkarra banintzan, bearrean aurkitu nintzan, motela banintzan or nunbait ibilli nintzan; Agoa bero ta sabela otz; Agur, agur, mingain luze poltsa labur; auntzaren umea, aintzume; Andiak, andiro; Andre ederra, etxean gerra; Ao itxian ezta eulirik sartzen.

Laugarren koaderno: 4/7

Laugarren koaderno honek 35 orri ditu. Neurriak 163 milimetroko zabalerakoa, 216 milimitroko luzerakoa. Orriaren orrialde bakarrean bakarrik dago idatzia. Azken orrialdea hutsik dagoenez gero, 34 orrialde bakarrik ditu idatzirik. Koadernoak kuadrikulatua deitzen diren horietakoa da. Horrialde bakoitzak 45 kuadríkula ditu eta ia kuadríkula bakoitzean esaldi bat dator. Orrialde bakoitzak, beraz, berrogei esaldi inguru ditu idatzirik.

Koaderno honetan idazleak hartu duen bidea bitxia da. Orrialdearen ezkerrean erdarezko hitz zein aditz bat agertzen du, eta ondoan euskarazko hitz edo esaldi bat. Erdarazko hitz bakoitzak badu zenbaki edo hizki bat. Zenbaki edo hizki hori kode bati dagokio, baina guk ezin izan dugu kode hori zein den argitu. Hona hemen adibide zenbait:

9 Impresión-Beti egin dit olako kili-kili goxoa.

D Oprimir etc.-Biotza lanperatu.

9 Impresionar-Urkoaren barne-zokoa iñarrosti ta dardarikatu.

5 Embobado-Biotza tutulu euki.

B Meta (Asapi.-Olerkari punterengoen zelaira eldu nai

T Tradición-Aitonetik semeetara, ametatik ondorengotara⁸...

1 Alegre-Poz-girotan ari zan M. Jauna

⁸ Nik aondorekoetara irakurtzen dut. Hutsa delakoan zuzendu egin dut.

Bostgarren koadernoia: 5/7

Orain arteko koadernorik orritsuena da. Neurriak: luzera 155 milimetroko zabalera 210 milimetroko luzerakoa. Guztira ehun eta berrogeitamar orrialde ditu, eta eskubiko alderdian zenbakiturik daude orrialdeak. Hogeiren bat orrialde-tan idatzirik egon ez arren, letra txiki eta argiz ondo beteak dira gainerako orrialdeak. Orrialde gehienak bi zutabetan idatzita daude, haina inoiz lau zutabetan ere ikusten ditugu esapideak. 11, 12 eta 13 orrialdeetan, kasurako, lau zutabetan daude euskarazko eta erdarazko esapideak. Esapideak gaika ordenatuta daude. Lehen gaia: Frases adverbiales. Honetan azpisaikapen batzuk: 1=de modo, 1=de tiempo, 1=de lugar, 1=de cantidad. Bigarren gaia: miscelanea. Hirugarren gaian azpisaikapen bat dago: 3=acudir, buscar; 3=tiempo; 3=Edad;

| 7. Hiztegia / 7 - Gaitasunak | 7 - Gaitasunak / 7 - Hiztegia |
|------------------------------------|--|
| MO pisan de dicit, en vano | 7 Olanak eza jain) agiri. |
| Seo un saco roto. | 7 Olan gaitasun eta (barrak). |
| Al saber callar nada | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Comer en la mes fumote | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Canar a un las cuarenta. | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Genio a sus mores barbas | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Dejar a un ferrocil | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Dejar a un es pultiendo a la rista | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Dejar en la boca abierta. | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Dejar a un colado. | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Por una zomanta. | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Dejar a un tremendo. | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Echando espina por la boca. | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Los haremos frente | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Las cara a un | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Dejar a un pulmo | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Aratar en duera. | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |
| Genio y con racion | 7 Olan gaitasun eta (barrak) / mite-erantz |

3=ligereza. Laugarren gaiko azpi-sailkapena: 4=Admiraciones; 4=Extrañeza; 4=Desprecio; 4=Piedad. Bosgarren gaiko azpi-sailkapena: 5=Adulación; 5=Engaño; 5=Vanidad; 5=Motivo. Seigarren gaiko ezpisailkapena: 6=Ira, enfado, rencor; 6=Miedo; 6=A punto de... Zazpigarren gaiko azpisailkapena: 7=Trampa; 7=Cantar las 40; 7=Ganas de hablar; 7=Precaución. Zortzigarren gaiko azpisailkapena: 8. Abúlico; 8=Animo-entusiasmo; 8=Cansancio; 8=Desaliento. Bederatzigarren gaiko azpisailkapena: 9. Brevedad; 9= Tiempo atmosférico; tempestades; 9=Calor. Orain arteko gai guztiak zenbakiturik daude eta orrialde bakoitza bi zutabetan banatzen du. Lehen zutabea edo ezker aldekoa erdarari dagokio, eskubialdekoa euskarari. Euskarazko zutabea bete-betea dago eta horrialdeko hogeitik hogeta bost esaldi inguru jartzen ditu. Horien erdal kide edo ordainak ez ditu askotan jartzen. Horrialdetako esaldiak tinda beltzeko lumaz beteak daude. Badirudi lehen idatzia egin ondoren bigarren aldi batean burura etorri zaizkion beste hainbat eta hainbat lapitzez idatzi dituela. Esaldi bakoitzak, gainera, dagokion atalaren zenbakia du ezkerretara.

Hona arteko sailkapeneko bederatzi atalok 59 orrialdetan idazten ditu. Gainerako sailak zenbakitu gabe emango ditu. Hona zenbait sail: habilidad; importancia, relación, encarecimiento. Beste gai bat: Bondad, sasisfacción, alegría, cariño, afición. Behin honetarako gero, gaiak sailkatzeko bidea hizkiak izango dira eta ez zenbakiak. A hizkidun gaiaren azpisailak: a=tonto; a=atención, olvido; a=ciencia cono(cimiento), a=equivocación; acierto. B hizkidun azpisailak: b=Despreocupación; b=desilusión; b=interés; b=egoísmo. C hizkidun azpisailak: c=apuestas; c=promesas; c=resolución; c=elección. D gaiko azpisailak: d=dignidad; d=humillación; d=progreso; d=disminución. E gaiko azpisailak: e=mentira; e=fanfarronería; e=modestia; e=terquedad. F gaiko azpisailak: f=duda; f=miedo; f=deseo; f=estimación; f=ambición. G gaiko azpisailak: g=trabajos; g=apuros; g=tristeza; g=pena, arrepentimiento. H gaiko azpisailak: h=claridad; h=paz; h=fe; h=esperanza. J gaiko azpisailak: j=in-

directas; j=imaginación; j=conversaciones; j= consejo, conminación. K saileko azpisailak: k=pereza; k=comparaciones; k=doble sentido o figurado; k=alevosidad. M gaiko azpisailak: m=vino; m=hambre; m=dinero; m=desgracia. N gaiko azpisailak: n=vi-cios; n=enfermedad; n=salud; n=imposibles. R gaiko azpisailak: n=distinción; r=pobreza; r= igualdad; n=facilidad. O gaiko azpi-sailak: o=cantidad; o=número; o=distancia; o=tamaño y postura. Ondoren datorrena, gezurra badirudi ere, ez da ordena alfabeti-koaren segidako hurrengo hizkia, D. D honi esapide onomato-peikoak dagozkio. Orrialdearen buruan honelaxe dator: D bai-zik. Hona D hizkiari dagozkionak d=Onomatopéyicas. Hurrengo datorren zenbakia S dugu. S saileko azpisailak: s=lu-gar; s=medir; s=postura; s=peligro, tentación.

Zenbaki arabeak eta alfabetoko hizkiak alde batera utzirik, beste sailkapen batekin hasten da. Sailkapen honetan hizki er-romatarrek agertzen dira, baina ez modu ordenatuan. Lehen lehenik III zenbakiarekin hasten da: III=limpieza; III=justicia; III=dolor; III=excusas. Honen ondoren bigarrena pasatzen da. II gaiko azpisailak: II=Impulso; II=conciencia; II=amenaza; II=libertad. Hemendik aurrera eginez, IV gaira go-az. IV gaiko azpisailak: IV=asunto; IV=euskera; IV=dificultad; IV=novedad. V gaiko azpisailak: V=comida; V=vuelta; V=victo-ria; V=perdida.

Azken sailkapen bat ere badator. Sailkapen honek oso adibide gutxi izango ditu. Berrito ere alfabetoa hartuko du oinarri. Hona hemen. A hizkiko azpisailkapenean: a=exage-ración; a=acabar de; a=suerte; a=previsión. Hauek guztiek ez dute horrialde erdia baino betetzen. B hizkiari dagozkion az-pisailak: b=decoro; b=belleza; b=compasión; b=silencio. C hizkiari dagozkion azpisailak: c=desafio; c=bendición; c=da-ma(?); c=blasfemia. D hizkiaren azpisailak: d=fracaso; d=vo-cación; d=onomatopéyicas; d=veneno. Eta azkenik E hizkia-ren azpisailak: e=costumbre; c=paciencia; c=apariencia; c=Ocurrencia.

Zutabeak nola horniduta dauden ikusteko, eman dezagun, kasurako, 3=tiempo gaia nola hornidua dagoen. Hona, 25 orrialdekoa:

Todas las noches/ gabian-gabian; Dos horas mas o menos/ Ordu bi inguru or or izango dira; Se les acercó de una corrida/ Arinka urreratu zitzayen...; El sol había salido (?) mucho/ Eguzkia aspalditik jagita zegoan; Te busco para que me bagas justicia/ Zuzentza egarriak iganatuak gaituk; caer en una misma tentación/ Gazta puska berean saguak topo; Acude a los tuyos/ Zoaz zuretarrengana; Intentar varios medios/ Jo batera ta jo bestera; Levantarse y caerse eran uno/ Jaso ala erortzen ziran; Para fines de este año se realizará/ Urte bururako gure naia egiña izango da.

Koaderno honek gainerakoak baino zirriborro itxura gutxiago du. Ia erabateko materiala dela esan daiteke. Bederatzigarren gaiko *Tiempo atmosférico* delakoa 57-59 orrialdeetan dago. Hona aldatuko dugu erderazko kidea baldin badu, aurrean duela:

-Aunque lluevan chupinazos -Zaparrada gustiak gora-bera jaurrera!

-Eguzki galdatan.

-Eguzkiak ere urregorritzko illez ornitutako arpegi gorri biribilla agertu zuan bere muñ epela leyo zear eskiñiaz.

-Goiko izarrak beko osiñaren zoruan garbi-garbi ikusten ditugun bezela...

-Maitekor dagertson eguzki-txinpart gorriak, mosu dagitso-nean...

-Eguzkiak mendi tontorrek gorritu baño lenago.

-Aize zakarrak jotzen dunean makurtu ta gero aize txarra igarotzean lenago bezin larden jaso burua (au da, lorearena).

Duro se presenta el invierno -Aurtengo negua bekoki ilunaz dager.

Con truenos y relámpagos -Oñestu ta trumoi ots aundiak dirala.

-Ara ontzizka olatu gañean kulunkan.

Está como para llover-Euritara dago eguraldia.

-Gero...-Eguzkitan bero.

-La mar está picada-Itxasuak bere asarrealdietan.

-Gotzabar edo egun usañagaz batera.

-Itsas guzia irikiten ha'lego lez.

-Llueve que da gusto -Euria parra-parra ari da.

-Llueve sin parar-Atertu gabe

-Montañas de agua-Asarre bitzez sorturiko ur-mendiak.

-El tiempo está caluroso-Sargori dago gaur.

-Trumoa burundaka.

-Egunik luzeena San Juanena.

-A llover -Euria dakar.

-Madalen bero, gaztañen aro.

-Itxasoan arrapatzen duten arratrik onena "aldana" izaten oi da.

-Abenduko eguna, argitu orduko illuna.

-Belar asko negu asko-Belar gutxi negu gutxi. Belarrik ez? Bearrik ere ez.

-Edurra ba-da menditan-Aize otza da erritan.

-San Bizentz otz-Neguairen biotz.

-Arbol txarrak itzal gutxi.

-Goiz gorri arratseko aize edo euri.

-Au dek amerikanua (Qué lluvia más oportuna.)

-San Juan eguna, argitu orduko illuna.

-Ehurra asi zan gilboka ta matazaka.

-Etzera etorritakoan, guardasola kampora.

-San Klemente papa-Ehurra tipi-tapa.

-Lan asko asarre asko

-Negua aña arropa ematen du Jainkoak.

-Jainkoak zenbat otz, hainbeste soñeko.

-Ilunabarrian jende asko iturrian.

-Sua auspean ere bero.

- An zan euria- jausi ala.
- Ardi beltza bilatzeko gau ona zeok!
- Eguzkia ta euria martiko eguraldia.
- Eguzki izpiz laztan beroa artu.
- Axia zuatz artetik txistuka dabil.
- Urdin tarteak agiri ortzean loreillean.
- Basoetan burunba.
- Odei itzalak loralde zear arin dijoaz.
- Urturiko metal-orixka ederrez.
- Sutondo biran jartzen dira, Ekaitz beltza omen dek-eta.
- Ekaitzaren zurrinbiloa, aizearen orruak eta itxaso barenrendik jeikitzen diran ur mendiak...?
- Betikotik lañopean dan N, (mendi) tontorrean.
- Eguzki beroa niganatzen ez bada, aren bila nik ezingo mendirantz
- Eguzki epela artuaz batera.
- Giroak apur bat laguntzea besterik ez du bear.
- Eguzki izpitan ez bada, eta aize gozo ta lurruntsua arnas-tuz ezik...
- Ian garaietan aldia oartu gabe dijoakit.
- Bederatzi gizalditako aizeak jo duten arren, zutik, erne, sendo ta iraunkor...
- Euri jasa ederrean...
- Sorkalde mendi gallurraren atzea sutan dagoala dirudi.
- Bere printz gorriak pixkaka, pixkaka agertzen dituz
- Eguzkiak gain samarretik artzen duala.
- Egun onari iriki ateak.
- Eguzkia ta euria karakolendako eztaia.
- Osto goxoak udazkenean adarretan zintzilik, ta notzbait bizitzari agur eginda, bai ta ez, bai ta ez, erortzen dira.
- Aizea etorri ta artu, zurrinbilloka an daramazki.
- Urrena neguko ehurrak estali ta akabo.
- Izar dago.
- Iraunkorra Ernioko gallurra aña.
- Ludi onetan garean osteko aberastasunak.

-Goizian goiz illunari bultz-eginda, iluna urratuz, argizki adatsaz jantzitako burua agertzen dauan eguzki-aldia txukunena da.

- Eguzki goiztarrak dei dagitso Egunari.*
- Egun amaikera bakoitzean Eguzkia itxasora.*
- Elur zuria. Izadiaren lora eder zoragarria.*
- Menditik bera dator zure (edurraren) negarra.*
- Artolxoetan axe meia ibili oi dan legetxe.*
- Txipristina ta berotasuna dariola.*
- N. mendiak laño-txapela jantzi eban.*
- Eguzki-galdatan.*

Orrialden bakoitzean hogeit hamar esaldi edo esapide agertzen dira gutxienez eta hogeita hamabosten bat, gehienez. Koadernoak 150 orrialde ditu, gorago esan dugunez. Hutsik dauden orrialde batzuk egon arren, gehienak ondo beteak daude. Guztira beraz hiru mila esapide baino gehiago daude. Lan handia da, inolaz ere.

Seigarren koadernoak: 6/7

Seigarren koaderno honek "Esaerak" du izenburutzat. Neurriak 221 milimetroko luzera du eta 156 milimetro zabale-
ra. Koaderno honetan atsotitz edo esaera zaharrak ez ezik, inoiz edo behin esapideak ere ematen ditu idazle karmeldar-
rak. Berrogeita lau orrialdetan idatziak daude esaerak eta esa-
pideak. Orain arte bezalatsu esaera-esapideak hizkika ordena-
tu ditu. Koadernoaren orri bakoitzeko orrialde bakarrean letra
argiz apuntatuak daude. Oraingoan ere bi zutabetan itxuratu
ditu esaera-esapideak, eskubialdean euskarazkoa eta ezker-
aldeko zutabea, erdarari dagokiona, gehienetan beterik gabeko
zutabea dugu. Hona E letrako adibideak:

- Egile baño eragille obe.*
- Eskutik ahora okelea galdu doa.*
- Esku onetik emai ona.*
- Erle uxatuak abaarik ez (panal).*

- Ezta aldatzik ibar bakorik.
- Etxean zar ta kanpoan gazte.
- Etxean jan ta kanpoan lan.
- Ezer ez-ta, orrenbeste pesta?
- Eztlul ortaz axolarik igazko aizeaz baño geyagorik.
- Egonean egonean, eskuratu azkenean.
- Erri ontako zenbat atzo, gaur bezela ziran atzo.
- Edurra ba-da menditan, aize otza da erritan.
- Etxe uts, asarre uts.
- Ezta ori artaldean dan bildotzik onena.
- Etxeak ate bat eta nagusi bat.
- Eliza urbil, aldarea urrin.
- Elizondokoak, mezatara azkenekoak.
- Ezta ori nere ardien bildotsa.
- Egur ona arian ezagun da.
- Etxera etorritakoan, guardasola kanpora.
- Ezkontza pobrerik ez, eriotz aberatzik ere ez.
- Esan zak norekin abillen ta esango diat nor aizen.
- Esku bat eman ta bi artu.
- Enea neretzal, zeurea biontzat.
- Etzan burutik maingu.
- Euliaren ostikadak urrun botako litukenak.
- Errial orren kanbioak oraindik elduko zaizkak.
- Ezkontza eguna zorion biaramona.
- Erbi loa, erdi loa.
- Etxeko ikatsa (sic), etxeko autsez estali.
- Ederra ta ona bi dituk.
- Ona ta ederra gutxitan batera.
- Ez lan ez jan
- Ezta bearra bezelako maisterra.
- Ez irudi orren mandoa beti antsu.
- Etzan gure mutikoa zazpi etxetako erri baten galtzekoa.
- Etxeko sua, etxeko autsez estali.
- Erbia pasatu ta lazoa jarri.
- Etxe ori erre kara erori.

- Errotan egon ta bidean laister.
- Eguzkia ta euria, martiko eguraldia.
- Egiñetan luze, esanetan labur.
- Ez emon umeari kordela luze ezpabere egingo du edozeñ gauze.
- Ederrak bi baliyo, onak tru ta lau, umillak ordea asko baliyo dau.
- Errana, arrana.
- Eskontzea gazteentzat loratzea zarrentzar ordea zoratzea.
- Egunik luzeena San Juanena. Gaurik luzeena Santa Luztena.
- Elorrio'ko buzkentza, zazpi libra ta bost ontza.
- Eulia eztitan baño askoz ere pozago.
- Errosarioa saldu ta kartak erosi.
- Ez da alagarririk musika lakorik.
- Ez du ematen hurutik orren gaizki dagoanik.
- Eldua uste ta gazia jan.
- Esan ba-zuan, bat, esan zuan!
- Eztuan oro emaille on.
- Euli bat sartu yat begira t'amonak esan eustan: Ez adi, txo-txo, egon euli bati begira.
- Egia esan, adizkidea galdu.
- Egun onari ate-leyoak iriki.
- Epperraren umea beti mendizalea.
- Etxe onak txingar ona.
- Eguzkia ta euria, karakolendako eztaia.
- Eztago ezirik gibelmin gaberik.
- Ez dakuzan begiak gatxik ez.
- Eguzkia nora, zapiak ara.
- Etxean otso, kanpoan uso.
- Etxe utsa, guda utsa.
- Etxera orduan basora.
- Ederra balitz ona ez ei-litz.
- Etorkitzuneko erleak, lanik ez.
- Egtn ta egtñ, irabazi ezin.

- Ez oera, ez oerean gora.
- Ez ur ta ez ardao.
- Eguzkia ta euria martsoaren aldia.
- Ez izan ta bai uste.
- Eskontza aurrean aldapa guztiak zelai.
- Erriak zer ikusi, ura ikasi.
- Etorriko da atetik, botako zaitzuna (sic) etxetik.
- Ez egik oyanean, eder eztanik kalean.
- Eziña beti buru aundi.
- Edontzi utsak zarata aundia, adin motsak barriketia.
- Euria ta lupetza, edurru ta izotza arpegia poztutzeko izpi-llu motsa.
- Esku onetik emai ona.
- Eskutik ahora, okelea galdu doa.
- Euzkal etxean, euzkal oiturak.
- Egia askoren erregarria.
- Errementariaren etxian zotza burduntsi.
- Edonun txakurrak ortozik.
- Esatetik izatera bide aundia zeok.
- Esale, entzule.
- Ezin duanak lasuna, jo begi abuan asuna.
- Edur urte gari urte; lora-urte, ezti-urte.
- Esakun zarrak gezurrik ez.
- Egiak beti bekokia garbi; gezurrak berriz atsea larri.
- Eri luzeak, kanpokoak aitzu, etxeakoak aspertu.
- Ez bat, ez bi!
- Ez itzarri lo dagoan txakurra.
- Eskondu aurretik emakume guztiak onak dira. Eskonduta gero erdiak ba-lira.
- Errementariaren etxian zurezko talo-burnia.
- Ez dakuzan begiak gatzik ez.
- Erroyaren arrautsiak usakumerik ez.
- Errotariaren errota-soñua logarri.
- Etxeak bear ta bideak ekarri.
- Egin ondo dagizun oro.

- Ez inoiz igon gora, zarean baño geyagora.
- Eztira oker ta zuzenak zorro bateko urinak.
- Edonoren etsaiak bere etxeoak.

Hauetan guztietan "Esale, entzule" horretan bakarrik jarri dio erdal ordaina aldamenean: *Donde las dan, las toman.*

Zazpigarren koadernoak: 7B

Koaderno honek azalean izenburu bat darama: Esaerak. Koaderno honek, gainerako guztiek ez bezalaxe, aurkibidea ere badakar. Emilianok berak dioskun bezalaxe:

| | Satisfacción | |
|--|--------------|--|
| Estaba emocionado | X | Aren biotza eragina begor |
| Palabras de su corazón | X | Bere erruotako puzka. |
| Sentados en una poltrona | X | alperkera ee-logun oigunear |
| En brazos de México | X | Lo gozoaren kalkoan |
| Así como un veinteaños | X | Lo datsa hasai-hasai |
| Como si fuera un hombre feliz | X | Baxirudak gure animak kezegia zuzkioa erle zuzkioa |
| Agradar al Señor | X | Eder isan jaunari |
| El sol nos envía su dulce beso | X | Eguzkiak...pere mun epala lele |
| Si somos los que peor vivimos, por los que en el mundo viven mal | X | Esas eskiniak |
| Carpa los dedos de gusto | X | En ezaroten aisi gershak bap na |
| Podar cara risuosa | X | elitzake munduan ezarrik izango |
| Sensible y que hago sentir | X | Gozaren-gozos atsak misakatuko gozua |
| Al amor de la lengua, comiendo y bebiendo | X | Por antzoko arpegia jarri |
| Lo haríamos de sentir el estímulo del gozo | X | Eraginera ee eragileria |
| | | Epei-epel gozo-gozo zaitza au dala, bestea dala, jak ezarrik, ee bestetik, zuzkioa |
| | | EZ al gendak por-zamortzen kili-ma naotuzko? |

"índice=Billabidea". Koaderno hau makinaz idatzitako dina 4ko orrialde erdiak josirik eratu dago. Azala ere ohi baino

sendoagoa jarri dio karpeta erdia arretaz ebaki eta ondo itsatsirik. Koaderno honek, edo hobeto esan, egileak arretaz egindako liburu honek 234 orrialde mekanografiatu ditu. Orrialde gehienak makinaz idatziak badira ere, eskuzko oharra eta adibideak ere baditu. Eta zer da honenbestez koaderno-liburu hau? Gainerako zirriborro-koaderno guztien garbiratzea dela iruditzen zait. Gainerako guztiak esan badut ere, batez ere inportanteenaren garbiratzea da, bosgarren koadernoarena, hain zuzen. Aurkibidean ere ordena bera dator: Frases adv. de modo; de lugar; miscelánea; acudir, buscar eta abar.

Azken ondorioak

Emiliano Barandiaranek egindako lan handi hau zertara dator? Uste dut euskara gaitzeko eta trebatzeko egin zuela lan handi hau. Esapide eta atsotitz gehienak iturri ezagunetatik datoz: *Refranes y Sentencias* liburutik, Oihenarten bildumatik, Azkueren bilketetatik, aldizkarietako artikuluetatik... Esate baterako, *Euskal Esnalea* aldizkarietako artikuluetatik bateko esaera-bildumatxo bat aldizkaritik ebaki eta bere paperen artean zuen.

Bilduma hau bilduma pertsonala denez gero, ez dut uste argitaratzeko egin zuenik. Behin ere ez du esapide edo atsotitzaren iturririk markatzen koadernoetan. Gaitz hau askotxotan gertatzen da artikuluetatik idatzietan ere. Esaera zaharrak izenburuaren azpian askotan ikusiko ditugu aldizkari askotan iturri ezagunetatik aldatutako esaerak: Peru Abarka liburukoak, Oihenartenak...E. Barandiaranen bilduman herriaren ahotik hartutakoak guk nahi baino gutxiago dira. Berak asmatutakoak ere ez dira gutxi. Badira garbizalekeriagatik aldatuak ere. "Etxe (h)utsa, gerra (h)utsa" ezaguna, esaterako, *etxe utsa*, *guda utsa* dakar. Bera bizi zen gizarte euskaldun hari jasotako materiala bagenu, askoz ere baliotsuagoa litzateke bilduma hau. Baina holakorik gutxi dago eta iturri idatzietatik zer den aldatu dena atera badaiteke ere, zail da gainerakoaren benetako balioa zein den esaten. Egongo dira bitxi zoragarri batzuk, baina oso

gutxi. Guk artikulu honetara aldatu dugunetik, esaterako, zein dira berak jaso eta beste inon aurkitu ez ditugun esaera eta atsotitzak? *Erbi-lo, erdi lo* esaterako oso ederra iruditzen zait. "Erbi-loa" zenbaitek duten "lo arina" da, batetik. Lo arin hori edozein hotsek edo argik galerazi dezake. "Erbi-loa" loxuxta ere izan daiteke, bestetik. *Erbi-lo, erdi-lo* hori atsotitz indartsua. Bestetan ere agertzen ote da? Zeintzuk dira berak asmatuak. Ez ote dira herri-esaera itxura dutenetako zenbait berak asmatuak? *Errotariaren errota-soñua logarri zer* ote da? Asmatua edo herriagandik entzuna? Badira esaldi hutsak ere, ez esapide ez errefrau ez direnak. Eman ditzagun kasurako bi: *-Goiko izarrak beko osiñaren zoruan garbi-garbi ikusten ditugun bezela...* Esaldi hau berak asmatua da eta pentsamendu bati dagokio. Beste hau, oster, berak asmatua dena argi dago: *-Maitekor dagertson eguzki-txinpart gorriak, mosu dagitsoanean...* Azken esaldi honetan, gainera, garbizale agertzen da. "Dagitson" bezalako adizkiek garbi adierazten dute nolako esaldia den...

Lan hau E. Barandiaranen esaldi-bildumatik gari garbia galauts edo lasto zikinetik bereiziko bagenu, probetxugarriago litzateke. Lan hori, ordea, kontu handiz eta luzaro egitekoa denez gero, hurrengo baterako utziko dugu.

Xabier Kaltzakorta